

2009ko laugarren hiruhilekoan ezkontzen %70 zibilak izan ziren

Ezkontzen kopurua jaitsi eta ezkontideen adina igo egin da

2009ko laugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilak gehitu egin ziren aurreko urteko aldi beraren aldean; 2008ko %64,6tik 2009ko %69,2ra, Eustaten datuen arabera. Normalean urteko azken hilabete horietan udakoetan baino ezkontza zibil gehiago izaten da; udakoetan ezkontza zibilak %51,8 izan ziren.

Urrian, azaroan eta abenduan 1.637 ezkontza izan ziren Euskal AEn, 2008.eko hiruhileko berean baino %12,1 gutxiago. Bizkaian 833, Gipuzkoan 609 eta Araban 148. Gure erkidegotik kanpo biziko direnen artean, 47.

Bizilekua Euskal AEn duten 1.574 gizonezko eta 1.595 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 1.399 senarrentzat (%88,9), lehen ezkontza izan zen; 11 alargun eta 164 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduak emakumeen portzentajea, zertxobait baxuagoa; 1.405 izan ziren (%88,1); alargunak 12 eta dibortziatuak 178.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, 2009ko laugarren hiruhilekoan senarren arteko %83,5ek 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %73,9k. Ehuneko biak aurreko urteko hiruhileko berean izandakoak baino handiagoak dira, aldi hartan %82,7 eta %70,2 izan baitziren.


Aurrera doa, beraz, ezkontzeko adina atzeratzeko joera; 2009. urtean senarren %81,2 eta emazteen %67,2 30 urte edo gehiagorekin ezkondu ziren; 2008.ean baino ehuneko altuagoak, %78,1 eta %62,3 izan baitziren.

2009. urteko behin-behinekoan, Euskal AEn bizi zirenen ezkontza kopurua aurreko urtekoa baino %8,1 txikiagoa izan da. Ezkontza zibilen proportzioak ehuneko 4 puntutan gainditu zuen 2008koa eta 2009an ezkontza guztien %60,4ra iritsi zen.

	2009ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2009ko 3. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2008ko 4. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.637	100,0	2.831	100,0	1.862	100,0
Kanonikoak	504	30,8	1.364	48,2	660	35,4
Zibilak	1.133	69,2	1.467	51,8	1.202	64,6
SENARGAI AK	1.574	100,0	2.738	100,0	1.783	100,0
Ezkongabeak	1.399	88,9	2.527	92,3	1.585	88,9
Alargunak	11	0,7	6	0,2	12	0,7
Dibortziatuak	164	10,4	205	7,5	186	10,4
EMAZTEGAI AK	1.595	100,0	2.761	100,0	1.823	100,0
Ezkongabeak	1.405	88,1	2.555	92,5	1.631	89,5
Alargunak	12	0,8	7	0,3	12	0,7
Dibortziatuak	178	11,2	199	7,2	180	9,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-basea](#)